



Lide Amilibia Bergaretxe
Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Andre hori,

Euskadiko hirugarren gizarte sektoreari buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan irailaren 4an, gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskadiko hirugarren gizarte sektoreari buruzko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Alabaina, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren gaztelaniazko bertsioa dagoela bakarrik, euskarazko bertsiorik gabe, nabarmendu behar dugu ez dela bete Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, euskal herri agintek, beren eskumenen esparruan, herritarren oinarritzko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute; bizi eta lan baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute; enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte; gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute; eta politika-, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute (9.2 artikulua). Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du gizarte laguntza gaitan (10.12 artikulua); irakaskuntza, kultura, arte, ongintza eta sorospen izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarten arloan (10.13 artikulua); kooperatiba, Gizarte Segurantzaz sartu gabeko mutualitate eta

elkarlaguntzako elkarteen arloan (10.23 artikulua); eta komunitatearen garapen, emakumeen egoera, haur, gazte eta adinekoen aldeko politikari dagokionez (10.39 artikulua).

Eskumen horien babesean onartu zen abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Zioen azalpenean adierazten denez, gero eta egoera desberdin gehiago daude eta gero eta konplexuagoak dira egoera horiek; nabaria da, beraz, haiei aurre egingo bazaie, jardun batzuk indartu behar direla, honako hauek: hirugarren sektorearekin elkarlanean aritzea, laguntzako sare informalei eustea, eragindako pertsonen parte-hartze antolatua sustatzea, sistemen arteko lankidetzaz- eta koordinazio-esparru batzuk (hala nola, gizarte eta osasunaren, gizarte eta lanaren, gizarte eta etxebizitzaren, gizarte eta hezkuntzaren, gizarte eta justiziaren, gizarte eta kulturaren artekoak) eratzea eta politika sozial bat garatzea, herritar guztiek herritartasun osoa irits dezaten, justizia soziala susta dadin eta bazterketaren egiturazko kausei ekin dakien.

Bestalde, aipatzekoa da abenduaren 11ko 283/2012 Dekretua, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzekoa.

Orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskadiko hirugarren gizarte sektorea arautuko da. Aurreproiektuaren I. kapituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (1-6 artikulua), II. kapituluan elkarrizketa zibila eta bestelako tresnak edo elkarrizketa-guneak arautzen dira, sektore publikoarekin eta beste agente batzuekin aritzeko (7-10 artikulua), III. kapituluan kooperazioa eta elkarlana gizarte esku-hartzearen esparruko politikak gauzatzean (11-17 artikulua), eta IV. kapituluan hirugarren gizarte sektorearen sustapena lantzen da (18-25 artikulua). Azkenik, bi xedapen gehigarri eta azken xedapena daude.

Lege Aurreproiektuan hizkuntza aipurik ez badago ere, arauak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin positiboa izan dezan, ondoko proposamenak egiten ditugu:

b.1- Aurreproiektuaren III. kapituluan gizarte esku-hartzearen esparruko politikak gauzatzean kooperazioa eta elkarlana arautzen dira. Horrela, adierazten da Euskadiko hirugarren gizarte sektoreko elkarte eta sareek gizarte politiketan parte hartuko dutela, gauzatze faseak barne (11.1 artikulua); Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema eta Euskal Enplegu Zerbitzua ardura publikokoak izanik ere, gizarte ekimenak ere horietan parte hartuko duela (11.3 artikulua), eta osasun eta hezkuntza arloetan ere Euskadiko hirugarren gizarte sektoreko elkarte eta sareen esku-hartzea aurreikusten da (11.4 artikulua). Kapituluako gainerako artikuluetan ere, euskal herri administrazio eta Euskadiko hirugarren gizarte sektoreko elkarte eta sareen arteko elkarlana jorratzen da. Azkenik, 17. artikuluan, ardura publikoko gizarte zerbitzuak ematean edo beste interes orokorreko jardueretan euskal herri administrazioekin elkarlanean aritzen diren Euskadiko hirugarren gizarte sektoreko elkarteen betebeharrak zerrendatzen dira, genero berdintasun eta ingurumenari buruzko betekizunak jasoz adibidez, baina hizkuntza aipamenik gabe.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bere 7.c) artikuluan jasotzen du, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema arautzen duten berdintasuna eta ekitatea printzipioen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek,

hizkuntza araudia betetze aldera, pertsonak euskara edo gaztelania erabiltzeko duten askatasuna bermatuko dutela. Halaber legearen 9.1.l) artikulua Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetako edozeinetan aritzeko eskubidea, norberak hobesten duenaren arabera, aitortzen die titulartasun publikoko nahiz pribatuko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei.

Orobat, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bere 60.4 artikuluan jasotzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen kudeaketan, edo gizarte-zerbitzuen eremuan erantzukizun publikokoak diren beste jardura batzuen kudeaketan, esku hartzen duten erakunde pribatuei dagokienez, 7. artikuluan aurreikusitako jokaera-printzipioak errespetatu beharko dituztela beren jardunean, arreta berezia eskainiz c) idatz zatian erregulatutako berdintasun- eta ekitate-printzipioari, eta bereziki Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritakoa betetze aldera, erakunde pribatu horiek beharrezkoak diren bitarteko guztiak ipiniko dituztela erabiltzaileek euskara edo gaztelania erabili aukeratzeko duten eskubidea gauzatu ahal izatea bermatzeko.

Zentzu horretan, kontuan hartuta abenduaren 5eko 12/2008 Legean elebitasunari ematen zaion garrantzia, eta Euskadiko hirugarren gizarte sektoreko elkarteek ardura publikoko gizarte zerbitzuen bermean esku hartuko dutela ikusita, uste dugu hizkuntzak bere isla izan beharko lukeela Aurreproiektuaren 17. artikuluan. Horregatik, Aurreproiektuaren 17. artikuluan idatz-zati berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Ahaleginak egitea, herritarrekin dituzten harremanetan arreta hauek aukeratutako hizkuntza ofizialean emateko.

b.2- Aztergai dugun Lege Aurreproiektuan xedatutakoaren ondorioz, Euskadiko hirugarren gizarte sektoreko elkarteek ordezkariak harremanak izango dituzte herri administrazioekin, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak aurreikusten du herritarrek euskara edo gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua). Beraz, Lege Aurreproiektuaren testuan xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege honen ondorioz herri administrazioekin dituzten harremanetan, hirugarren gizarte sektoreko elkarteek ordezkariak euskara edo gaztelania, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko irailaren 17an

Ángel Lobera Revilla

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria